


HIRU(H)ARI

2025eko URRIAK 9-10

PLURIBERTSITATEA, KULTURA ETA KOMUNITATEA



EMAUS GIZARTE FUNDAZIOA | TABAKALERA | EHU

KREDITUAK

Talde motorra:

Júlia Barjau (Emaus Gizarte Fundazioa)
Alberto Gastón (Emaus Gizarte Fundazioa)
Elene Cid (EHU)
Antonio Casado (EHU)
Arantza Mariskal (Tabakalera)
Mikel Edeso (Tabakalera)

Eskerrak:

Leire de Miguel (Ikertze)
Fernando Vera (Ikertze)
Leire García (Colaborabora)
Txelu Balboa (Colaborabora)
Estitxu Garai (EHU)
Maitane Arnoso (EHU, UKS)
Unibertsitate Kritiko Sarea
Diputación Foral de Gipuzkoa

Finantziaketa:

Agencia Vasca de Cooperación y Solidaridad/Elankidetza

Lan hau CC BY-NC-SA. 4.0 lizentziapean dago egina.



AURKIBIDEA

0 Sarrera

01 Nola sortu zen ekitaldia?

02 Jardunaldiak

03 Nor bertaratu zen?

04 Ikaskuntza nagusiak

05 Ondorioak eta hurrengo urratsak

06 Eskerrak

07 Baliabideak

0. SARRERA

HIRU(H)ARI topaketa —Pluribertsitatea, kultura eta komunitatea— topaketa 2025eko urriaren 9an eta 10ean egin zen Donostian; Tabakalera, EHU eta Emaus Gizarte Fundazioaren lankidetzaren hilabeteetako lanaren emaitza izan zen eta bi erakundeetako komunikazio eta ekoizpen taldeen laguntza jaso zuen.

Topaketaren abiapuntua izan zen ezagutza artistiko, komunitario, akademiko eta politikoen arteko bizikidetzari eta elkarri eusteari buruz galdetzea, bai eta bizitza komuna birsortzeko duten gaitasunari buruz ere.

Esparru hori lau ardatzen inguruan egituratu zen:

1. Adimen kolektiboa, ekintzarako dei gisa, eta ez soilik entzuteko dei gisa;
2. Elkarri lotutako ezagutzak, askotariko esperientziak elkarrekin bizitzeko eta elkarri eusteko gonbidapen gisa;
3. Maialen Lujanbiok, Katya Colmenaresek eta Manuela Carmenak gorpuztutako inspirazio-ahotsak, tradizioak berritzeko eta zaintza-esparruak proposatzeko gai direnak;
4. Oraina etorkizuna delaren baieztapena, komunitate-loturak indartzeko eta kultura gizarte-eraldaketaren motor gisa kokatzeko premia azpimarratuz.

Lehenengo jardunaldia urriaren 9an izan zen, Prisman, Carmena, Colmenares eta Lujanbiorekin, Estitxu Garaik (EHU) moderatuta. Erantzuna bikaina izan zen: 188 pertsona bertaratu ziren eta gonbidapen guztiak agortu ziren.

Elkarrizketak tradizioa, politika, dekolonialitatea, feminismoa eta praktika komunitarioak uztartu zituen oso ibilbide desberdinetatik, eta publikoarengan esperientzia ausarta eta probokatzailearen sentsazioa sortu zuen.



Bigarren jardunaldia, Txirikorda izenekoa, urriaren 10ean egin zen, eta 47 pertsonak aktiboki hartu zuten parte egun osoko lan-tailerrean. Hau iada, lorpen garrantzitsutzat jo zuen lan-taldeak.

Txirikorda topagune espazio bat izan zen, praktika kulturalen, sormen komunitarioaren eta jakintzen inguruan aliantzak aktibatzerara bideratua, non proiektu eraldatzaileen inspirazioak, ezagutza kolaboratiboaren sorkuntzak eta konexio espazioek leku berezia izan zuten.



1. SORRERA

Tabakalerak, Emaus Gizarte Fundazioak, EHUK eta UKS sareak (Unibertsitate Kritiko Sarea) aliantza bat osatu zuten erronka komun horri heltzeko.

Azken hamarkadetan, modernitatearen eta ekonomia globalaren dinamikek pixkanaka ahuldu egin dituzte lotura komunitarioak, transmisio kulturala eta elkar zaintzeko modu tradizionalak.

Indibidualismo gero eta handiagoak eta hiriko bizitzaren erritmo azkarrak parte-hartze sareak higatu dituzte, eta elkarte- eta kultura-jarduera boluntario gutxi batzuen esku utzi dute. Boluntario horiek, gainera, baliabide mugatuekin lan egin ohi dute.

Hauskortasun horrek zuzenean eragiten dio belaunaldi berriak erakartzeko gaitasunari, eta areagotu egiten du polarizazio soziala. Berdintasunaren, aniztasunaren eta justizia sozialaren arloan funtsezko aurrerapenak zalantzan jartzen dituzten diskurtsoak berriro agertu dira testuinguru honetan. Eraitza belaunaldien arteko errelebo gero eta zailagoa da, eta benetako arriskua dakar hizkuntzaren, memoriaren eta lurraldearekiko lotura biziaren bizitasunerako.

Diagnostiko horri politika publikoen, oinarritzko ekimenen eta ezagutza sortzeko iturrien arteko aldea gehitu behar zaio. Erakundeek ez dute beti lortzen eskatutako arintasunarekin erantzutea, eta herritarren mugimenduek daukate, berriz, gizarte- eta kultura-sarea mantentzeko, berritzeko eta indartzeko erantzukizuna, baldintza desagokietan gainera. Egoera horretan, bokazio eraldatzailea duten proposamen asko desagertzen dira, eta indar kritikoaren eta benetako aldaketak sortzeko gaitasunaren zati bat galtzen dute.



Horrela, bada, tamaina handiko erronka planteatzen du horrek: elkarte- eta kultura-bizitza birsortzea, ahuldu ordeztu bere indar eraldatzailea berreskuratu eta eguneratzeko; justizia sozialaren, bizitzaren jasangarritasunaren eta kultura-aniztasunaren aldeko borroka modu sendoagoan artikulatzea tentsioak eta polarizazioak markatutako garai batean; eta, azken batean, benetako ezagutzaren “ekologia orokor” bat indartzea —Tabakaleraren aurtengo programaren terminoetan—, non ezagutza akademikoak komunitate-, arte- eta lurralde-ezagutzen berdintasunean aritzen den.

Erronka horri erantzuteko, ezinbestekoa da lankidetzaren-eredu berriak esploratzea, hala nola jardunaldiak sortu eta antolatu zituen talde eragilearen lana bera, zatiketaren eta lehiaren logika gainditu eta askotariko ekosistema kultural interdependente eta jasangarri baten alde egingo dutenak.

Pluribertsitatea ez da ikuspegi batuketa hutsa, harreman-modu bat baizik, ezagutza bakoitzak bere ekarpena egitea ahalbidetzen duena, bestearen lekua hartu beharrik gabe; horrela, eremu komun bat sortzen da, non konponbide berriak eta kolektiboak sor daitezkeen.

*pluribertsitatearen apustua:
mundu, jakintza eta praktika
ugari —akademikoak,
komunitarioak, artistikoak,
politikoak— elkarrekin
bizitzea, dialogatzea eta elkar
eraldatzea, haien arteko
desberdintasunak
aberastasun iturri gisa
aitortuz, eta ez banaketa
iturri gisa.*

Pluribertsitatearen ideia behin eta berriz agertu zen jardunaldietan zehar. Lehen eguneko solasaldian, adibidez, Maialen Lujanbiok azaldu zuen bertsolaritzak bizirik iraun duela, hain zuzen ere, “lotzen” jakin duelako: uztartu du ahozko tradizioa eskolarekin, landa-mundua hirikoarekin, belaunaldi nagusiak gazteekin, eta ahots maskulinoak femenino eta feministekin. Elkartze logika hori ez zen plan estrategiko baten emaitza izan, erantzun bizi eta intuitibo bat baizik: irekitzea, nahastea, subjektu berriei praktika berrinterpretatzen uztea eta bere egin dezaten.

Horren emaitza komunitate dinamikoa da, etengabe birsortzen ari dena, fosilizatu gabe tradizioari bizirik eusteko gai dena, eta gizarte-aldaketei erantzuteko gai dena, sentsibiltate berriak, hizkuntza berriak eta kolektiboa ulertzeko modu berriak txertatuz.

Ilido horretatik, bertsolaritza pluribertsitatearen metafora bizia da: erakusten du kultur jarraitutasuna elkartzeko, hibridatzeko, aldaketa jarraitutasunerako aukera gisa onartzeko gaitasunaren mende dagoela.

Lujanbioren aipua bereziki garrantzitsua da komunitatearen aktibazioaren eta asoziazionismoaren testuinguruan, erakusten baitu, adibide zehatz eta ezagun batekin, praktika kultural tradizional batek —bertsolaritzak— bizirik eta modu inklusiboan gaur egun irautea lortu duela, ez ustezko garbitasuna babestuz, baizik eta modu intuitiboan bizitza sozialeko beste esfera batzuekin elkartzeko duen gaitasunari esker. Irekitasun horrek —eskolarantz, hirirantz, sentsibiltate berrietarantz eta historikoki baztertuak izan diren subjektuetarantz— asoziazionismo organikoaren eredu bat erakusten du, non kulturak mundu ezberdinen arteko bitartekari gisa jokatzeko duen eta aniztasuna aurkitu, dialogatu eta eraldatu daitekeen, bere singularitatea galdu gabe.

Begirada horrek bat egiten du Katya Colmenaresen proposamenarekin; horrek, askapenaren filosofiatik eta “bizi-komunitatearen” ideiatik abiatuta, azpimarratzen du gizarte-eraldaketa ez dela lortzen egitura zurrunen edo eredu bertikalen bidez, baizik eta natura, antzinako memoria eta ekintza kolektiboa osatzen duten harreman-ehunen bidez. Colmenaresen ustez, kultura —komunitatea bezala— lurralde bizia da, non iragana, oraina eta etorkizunak bat egiten duten, eta giza esperientziak elkarrenganako erantzukizunaren klabeen berrinterpretatzen diren.



Pluribertsitateak ideia hori jardunaldien kontzeptuzko eta ikusizko iruditeriara eramateko, talde eragileak permakulturatik datorren “**hiru ahizpen**” metaforara jo zuen:

“hiru ahizpak”:

arto, babarrun eta kalabazaren
milaka urteko laborantza; izan ere,
elkarrekin haztean, elkar babestu,
orekatu eta elikatzen dute.

Kulturaren eta gizartearen eremura eramaten badugu, irudi horrek diziplinak, sentsibiltateak eta ibilbideak sortzera gonbidatzen gaitu, elkarrekin lotuta, multzoa indartzen eta ekosistema emankorragoa eta erresilienteagoa sortzen duten elementu gisa.

Horrela ulertuta, *pluribertsitatea* ez da soilik jakintzak aldi berean egotea, laborantza-prozesu kontziente gisa eratzen da:

Desberdintasunak baliabide bihurtzen dituen elkarrekiko zaintza, eta aliantza sortzaileak erronka sozial eta ekologiko garaikideei aurre egiteko tresna. Dagoena zaintzeaz gain, harreman, ekoizpen eta bitartekotza kultureko ereduetan berritzea proposatzen du, kultura garaikidea etorkizun posibleen benetako laborategi gisa kokatuz, elkarrekin bizitzeko modu berriak kolektiboki irudikatu eta entseatzeko.



2. JARDUNALDIAK

Erronka horri ikuspegi pluribertsotik heltzeko, hiru ahizpen metaforan inspiratutako bi jardunaldi elkarrekin diseinatu ziren; hortaz, HIRU(H)ARI izenarekin, jakintza, ibilbide eta sentsibiltate desberdinak elkarrekin sortzeko, lotzeko eta bizitza komunitarioa ulertzeko eta indartzeko modu berriak sortzeko espazio bat aktibatu nahi izan zuten.

Horrela, lehenengo saioa hiru emakume aitzindarien ibilbidetik jakintza eraldatzaile ezberdinak elkarlotzeko fasean zentratu zen, eta bigarren saioak koprodukzio fasean jarri zuen enfasia, bizipenak partekatuz, osagarritasunak identifikatuz eta askotariko ekimenen artean sortzen ari diren loturak detektatuz.

Txirikordaren lan kolektiboa hiru ahizpen metaforan oinarritutako lankidetza sinbiotikoak sortzera bideratu zen, parte-hartzaileen praktikak eta proiektuak elkarri indartuko dituzten loturak lantzeko gonbidapen gisa ulertuta. Elkarrekin, topaketaren galdera nagusian sakondu ahal izan zuten: nola egituratu ezagutza-ekologia plurala eta kokatua, lurraldean eragina izango duten lankidetza-modu eta ezagutza-ekoizpen berriei eusten diena.


HIRU(H)ARIren bi jardunaldietan, aktibistek, kultura-eragileek, ikertzaileek, irakasleek eta ikasleek erronka komun baten inguruko ikaskuntzak, tentsioak eta horizonteak partekatu zituzten: nola lortu ezagutzaren sorrera sarean ez ezik, espazio benetan demokratikoetan, feministetan, arrazakeriaren aurkakoetan, intersekzionaletan, dekolonialetan eta bizitzaren jasagarritasunarekin konprometitutakoetan ere gertatzea, inpaktua benetako gizarte-eraldaketa bihur dadin. Kezka hori Gizarte Mugimenduetako Herri Unibertsitateekin (UPMS) lotzen da, besteak beste. Izan ere, hainbat subjektoren arteko elkarbizitzan sortzen da ezagutza, ahal dela, hainbat egunetan espazio bera partekatuz, kolektiboki gatazka sortzaileak, desadostasunak eta helburu partekatuak kontuan hartzen dituen pentsamendu bat sortuz, non aniztasunak eragile pedagogiko eta politiko gisa funtzionatzen duen.

Euskal testuinguruan planteamendu horrek ñabardura espezifikoak hartzen ditu. Unibertsitate-erakunde sendoak (nahiz eta merkantilizazio-logiken menpe dauden) eta kultura-ekosistema aktiboa izan arren, jakintzak siloetan mugitu ohi dira: unibertsitateek, gizarte-mugimenduek, arte-kolektiboek edo tokiko komunitateek logika propioekin funtzionatzen dute, eta logika horiek ez dira beti elkarrekin konektatzen.

**Lurraldearen erresilientzia soziala eta kulturala,
neurri handi batean, tokiko ezagutza – praktika
historikoetan, komunitate-loturetan,
hizkuntzetan eta kokatutako bizimoduetan
errotuta – beste eremu batzuetako tresna
analitiko eta metodologikoekin integratzeko
gaitasunaren mende dagoela azpimarratu zen.**

Jakintza horiek konektatzeak, arazoen ulermena zabaltzeaz gain, erantzun doituagoak, jasangarriagoak eta bidezkoagoak diseinatzeko aukera ematen du.

Erreakzio autoritarioek eta diskurtso antifeministek markatutako garai batean, justizia, indarkeria, komunitatea, prebentzioa eta erreparazioa jorratzeko esparru komunak eraikitzearen garrantzia azpimarratu zen. Horretarako, prozesu jasangarriak, kulturen arteko elkarriketa eta kosmobisio desberdinen arteko elkarrekiko itzulpenak behar dira. HIRU(H)ARIk erakutsi zuen gizarte-mugimenduek, kultura-kolektiboek eta unibertsitateek elkarrekin pentsatzeko eta jarduteko bat egiten dutenean, jakintza sortzeko praktika bat sortzen dela, mundua behatzera mugatzen ez dena; izan ere, eraldatu egiten du. Praktika horrek gatazka ikaskuntza-iturritzat hartzen du; neutraltasunaren fikzioari uko egiten dio eta justiziaren aldeko apustua egiten du; eta gure komunitateen emantzipaziorako eta etorkizuneko bizitasunerako ezinbesteko baldintza gisa lantzen du pluribertsitatea.



3. NOR BERTARATU ZEN?

Badakigu egun osoko jardunaldi batera joateak ahalegin handia eskatzen zuela, lan-kargetik, karga pertsonalek eta komunitarioek ez baitute beti aukera ematen hausnarketa kolektiboko prozesuetarako denbora izateko.

Aitortzen dugu, halaber, prestasun-eskakizun horrek alborapena eragin zezakeela taldearen osaeran, mugatu egiten baitu interesa izan arren hainbeste ordu jarraian eman ezin zituzten pertsonen presentzia. Hala eta guztiz ere, irudikatutako ahots eta esparruek espazio bereziki emankorra, inspiratzailea eta ñabarduretan aberatsa sortzea lortu zuten.

Bildutako profilek askotariko parte-hartze profesionala eta belaunaldikoa erakutsi zuten, baina ez beti orekatua. Erakundeen aniztasuna ere nabarmendu zen, tokiko erakundeak zein estatuko eta nazioarteko unibertsitateak (Berkeleyko Unibertsitatea, Valentziako Unibertsitate Politeknikoa, Txileko Unibertsitatea, Granadako Unibertsitatea edo Peruko San Markoseko Unibertsitate Nazional Nagusia) bertan baitziren.

Gazteen parte-hartzea izan zen erronka nabarmenenetako bat: bertaratutakoen % 16k soilik zituen 36 urte baino gutxiago, eta horrek, belaunaldien arteko errelebo-estrategiak eta gune horietarako irisgarritasun-estrategiak indartzen jarraitzen jarraitu behar dugula erakusten du. Aitzitik, jatorri profesional eta komunitarioen aniztasuna bereziki aberasgarria izan zen, esparru akademikoaren, kultura-sektorearen eta hirugarren sektoreko elkarleen arteko oreka dinamikoa ahalbidetu baitzuen. Konbinazio horrek ikuspegi truke anitza erraztu zuen, eta jakintza kokatuak, oinarritzko esperientziak eta esparru kontzeptual zabalagoak lotzen dituzten espazioak eraikitzen jarraitzearen garrantzia berretsi zuen.

NOREN FALTA SUMATU DUGU?

Lehen adierazi den bezala, gazteen absentzia nabarmena izan da. Ahaleginak egin badira ere, **36 urtetik beherakoen parte-hartze txikiak agerian uzten du formatuak, denborak eta hizkuntzak birpentsatu behar direla, gune horietan haien inplikazioa errazteko eta belaunaldien arteko errelebo-prozesu errealek bultzatzeko.**

Berariaz, gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren esparruan lan egiten duten erakunde eta kolektibo gehiagoren falta ere sumatu dugu, batez ere, testuinguru komunitarioetan, hezkuntza-testuinguru ez-formaletan edo oinarrizkoetan beren lana garatzen dutenena.

Haien parte-hartzeak ezagutzaren, pedagogiaren eta ekintza politikoaren arteko loturen inguruko elkarrizketa aberastuko zukeen, topaketaren helburuetarako funtsezko begirada eta praktikak eskainiz.

Era berean, egoera kalteberan dauden kolektibo eta pertsonen parte-hartze zuzen urria da prozesuaren muga nagusietako bat. Bertaratu diren erakunde askok kolektibo horiekin batera lan egiten duten arren, protagonista gisa ez egoteak agerian uzten du espazioak ez zituela erabat hautsi ordezkapen- eta bitartekotza-dinamika jakin batzuk. Ildo horretatik, topaketak lehendik zeuden botere-harremanak errepikatu zituen partzialki, **ahots jakin batzuek — instituzionalizatuagoak, profesionalizatuagoak edo akademikoagoak— presente egoteko erraztasun handiagoa izan baitzuten.**

Egiaztapen horrek etorkizuneko edizioei begira honako hau eskatzen digu: beste gorputz, ahots eta jakintza batzuentzat irigarriagoak, bizigarriagoak eta seguruagoak diren espazioetarantz aurrera egitea, aniztasuna printzipio diskurtsibo gisa ez ezik, nork parte hartzen duen, nondik hitz egiten den eta elkarrizketa kolektiboa zer baldintzatan eraikitzen den eraldatzeko praktika zehatz gisa txertatuz.



4. IKASKUNTZA NAGUSIAK: HIRU DEKALOGO

Jardunaldia lankidetza orotarako zeharkako hiru gairen inguruan diseinatu zen, parte-hartzaile guztien artean landu ahal izateko, bakoitzak bere ikuspegitik eta lan-esparrutik ekarpenak eginez.

Jardunaldian jorratutako **hiru gaiak** honako hauek izan ziren:

**Sareko
pentsamendua:
adimen
kolektiboa**

**Zaintza
erdigunean:
gure harreman-
moduaren
ikuspegi
intersektzionala**

**Unibertsitatearen
eta gizartearen
arteko zubiak:
egiten dugunaren
inpaktua**

Leire de Miguelek (Ikertze kultur elkarte) dinamizatutako bederatzi lankidetza proiektu eraldatzaile erakusteko gune bat egon zen; ondoren, aipatutako gaien inguruko erronkei eta aukerei heltzeko lan-mahaiak sortu ziren, eta, azkenik, Leire Garciak (Colaborabora kooperatiba) dinamizatutako partaideen arteko konexio eta lankidetza berrien sustapen dinamika batekin itxi genuen eguna.



Proiektu eraldatzaileen aurkezpena hiru solasaldi laburretan egituratu zen, bakoitza jardunaldiaren gai bati lotuta. Diseinu metodologikoan, arreta berezia jarri zen testuinguru desberdinetako parte-hartzaileak biltzean, elkarrikitasuna anitzak eta ibilbide eta errealitate desberdinetatik abiatutakoak ahalbidetzeko, ardatz tematiko bakoitzaren inguruko topaguneak, ikaskuntza partekatuak eta begirada osagarriak identifikatzeko.

Dialogo-mahaien kasuan, hiru talde osatu ziren, eguneko hiru gaien arabera. Mahai bakoitzeko lana bi fasetan egin zen: lehenengoan, egungo erronkak aztertu ziren; bigarrenean, berriz, aurrera egiten eta tentsio-puntu jakin batzuk gainditzen lagun zezaketen faktoreak eta palankak identifikatu ziren.

Jarraian, gai bakoitza aurkeztuko dugu, eta jardunaldian eskuratutako ikaskuntzak, erronkak eta nabarmendu beharreko gakoak bilduko ditugu, dekalogo labur batean.



1. SAREKO PENTSAMENDUA:

1. ADIMEN KOLEKTIBOA

Arlo horren erdigunean, beharrezkoa da ezagutza partekatu, transmititu eta etsitzea testuinguru sozial, kultural eta akademiko desberdinetan; jakintza akademikoak, komunitarioak eta herrikoiak dialogo errealean txertatzea, eskuragarri egitea eta partaidetza-prozesuak ahalbidetzea, askotariko kolektiboak eta herritarrak kontuan hartuta.

Ezagutzaren ekoizpena ezin da espazio
espezializatueta mugatu: mugitu, nahastu eta
ireki egin behar da aldaketarako motor bihurtzeko.

Egungo gizarte-erronken aurrean, prozesu osoa lagundu zuten galderak sortu ziren: nola aktibatu herritarrek parte hartzeko moduak, adimen kolektiboa demokraziaren indar eraldatzaile gisa sustatzeko gai direnak? zer esan nahi du parte-hartzea praktika kokatua, jasangarria eta kosortzailea izateak, eta ez egiteko puntuala edo apaingarria? zer metodologia, azpiegitura eta teknologia behar ditugu etorkizun bidezkoagoak, inklusiboagoak eta erresilienteagoak eraikitzeko?

Jardunaldian zehar, gai horiek lagungarriak izan zitzaizkigun kolektiboki irudi bat kokatzeko eta zehazteko, orainari zein etorkizun posibleari buruz, adimen kolektiboari buruz eta elkarrekin bizitzeko, antolatze eta erabakitze ditugun moduak birkonfiguratzeko ahalmenari buruz.

Funtsezko elementuetako bat aurkeztu ziren lankidetzako proiektu eraldatzaileak izan ziren. Jakintzaren ekologiaren ardatzari dagokionez, Medialab Tabakalerako laborategien koordinatzaile Ibai Zabaletak lantalde irekiak aurkeztu zituen. Proposamen hori gai zehatzei buruzko ikerketa ireki eta kolektiboan oinarritutako metodologia bat da, ezagutza berria sortzea, proiektuak artikulatzea eta dauden praktika komunitateak indartzea helburu duena. Talde horiek ikasteko modu horizontala eratzen dute, askotariko jakintzak topatzea eta balio partekatua sortzea ahalbidetzen duena.

Esperientzia horretatik abiatuta, lankidetzari lotutako hainbat erronka partekatu ziren. Alde batetik, espazio eta denbora falta; horiek dira prozesu kolektiboak garatu ahal izateko ezinbestekoak diren bi baldintza, eta egitura instituzionalek nabarmen zailtzen dituzte.

Bestalde, azpimarratu zuten espazioak eta denborak nahitaez baliabide ekonomikoak behar dituztela. Galdera nagusi bat sortu zen orduan: Nola eutsi denboran lankidetza-proiektuei, eta bermatu proiektu horiek sortu, erraztu eta mantentzen dituzten pertsonak baldintza duinetan eta ondo ordainduta lan egin ahal izango dutela?

Ardatz berean, EHUko irakasle Antonio Casadok Gi2030 proiektua aurkeztu zuen, unibertsitatea, elkarteak eta herritarrak lotzen dituen ikaskuntza komunitatea, Gipuzkoan partekatutako etorkizunak irudikatzeko. Lankidetza-metodologiaren eta eraginaren ebaluazio parte-hartzailerako prozesuen bidez, proiektuak elkarrekin sarea indartzen du eta zaintzan, jasangarritasunean eta herritarren parte-hartzean oinarritutako gobernantza demokratikoko modu berriak probatzen ditu.

Bi proiektu horietatik ikaskuntza komunak sortu ziren. Horietako bat izan zen lehendik dauden prozesuak lagundu behar direla, inplikaturako komunitateak konektaturako dituzten teknologia eta tresnen bidez, galderen, erantzunen eta proposamenen fluxu dinamikoa bultzatuz. Bestea, berriz, isileko ezagutzaren balioa aitortzea izan zen. Gizarte-arloan zein unibertsitatean dagoeneko existitzen da, dena hutsetik berrasmatzeko tentazioa saihesteko.

Herritarrekiko kosorkuntzak ezagutza kolektiboa eta artikulatua eskatzen du, eta horretarako azpiegitura egokiak behar ditu, adimen artifizialarekin gertatzen den bezala. Maialen Lujanbiok aurreko jardunaldian aipatu bezala, “plazak sortzen duen jakinduria”: plazak – komunitateak – sortzen duen jakinduria hor dago, eta irakurtzen eta aktibatzen jakin behar da.

Era berean, azpimarratu zen adimen kolektiboak konfiantzazko espazioak sortzea eskatzen duela, aliantzak egituratu ahal izateko, aurkeztutakoak zein erakundeekin, kolektiboen eta erakundeekin artekoak. Hala ere, espazioa, denbora eta baliabideez gain, lankidetzak zerbait sakonagoa eskatzen du: eraldaketa pertsonala eta antolakuntzako.



Lan egiteko moduetan, botere-logiketan eta kultura instituzionalean aldaketarik egin gabe, nekez sendotu ahal izango dira proiektu pluribertsoei eusteko beharrezko artikulazioak.

“PENTSAMENDU KOLEKTIBOAREN” ARLOKO 10 PUNTU NAGUSIAK

1. LANKIDETZA BARNE- MUNDUAN HASTEN DA

Ezagutzak artikulatzeko oztopo nagusia ez dator beti kanpotik: paradigma berrietara irekitzea zailtzen duten beldur pertsonalak —prestigioa, baliabideak, kontrola edo nortasun profesionala galtzeko beldurrak— dira. Elkarlaneko ezagutza sortzeak umiltasuna, deserosotasunerako prestutasuna eta deszentratzeko gaitasuna eskatzen ditu: “gure egia” babesteari uztea, zentzu partekatuak sor daitezen ahalbidetzeko.

3. EGUNGO ANTOLAMENDU- EGITURAK EZ DAUDE LANKIDETZARAKO DISEINATUTA

Siloek, hierarkia zurruneak, gehiegizko burokraziak eta helburu partekaturik ezak zaildu egiten dute baterako sorkuntza. Horri testuinguru jakin bat gehitu behar diogu, ezagutza jakin batzuei balioa kentzen diena (batez ere gizarte- eta komunitate-ezagutzei) eta dinamika produktibistak lehenesten dituenak. Aldaketa instituzionalik gabe, adimen kolektiboa mugatuta geratzen da.

2. ANIZTASUNAK HIZKUNTZA ETA ELKARTZEKO MODU BERRIAK DAKARTZA

Desberdintasun epistemologikoa, kulturala edo profesionala ez da arazoa, potentziala da, betiere komunikazio argia badago eta termino komunak aurkitzeko benetako ahalegina egiten bada. “Lankidetzaren gramatika” hori gabe, ezagutzek ez dute topo egiten.

4. DENBORA ETA ENERGIA FALTAK PRAKTIKA INDIBIDUALETARA BULTZATZEN GAITU

Lankidetzak bakarka lan egiteak baino denbora gehiago eskatzen du, eta egungo baldintzek oso gutxitan ahalbidetzen dute hori. Elkarlan arrakastatsuen ageriko erreferenterik ez egoteak norbanakoarentzako joera indartzen du, eta “kosortzea” luxua izatea elikatzen du, ez behar estrategikoa.



5. BEGIRADA ALDATU BEHAR DA: “NITIK” “GURA”

Eraldaketa oro barne-
desplazamendu batekin hasten da:
ezagutza jabetza indibidual gisa ez
hautematea eta eraikuntza
kolektibo gisa ulertzea. Aldaketa
horrek entzutearen, elkar
aitortzearen eta baterako
erantzukizunaren etika dakar.

7. AKATSA IKASKUNTZA- TRESNA BIHUR DAITEKE

Perfekzionismoaren eta
hutsegitearen beldurraren
kulturek sormen kolektiboa
mugatzen dute. Akatsa
prozesuaren parte izatea eta hala
berrinterpretatzeak —ez nortasun
profesionalaren mehatxu gisa—
berrikuntza esanguratsuetarako
atea irekitzen du.

9. INDARGUNEAK LERROKATZEN DIRENEAN SORTZEN DA LANKIDETZA, EZ BAKARRIK BEHARRAK SORTZEN DIRENEAN

Gabeziatik gaitasunerantz
lekualdatzea —mesfidantzatik
itxaropenera— balio eta helburu
komunak eraikitzea ahalbidetzen
du. Horretarako, funtsezkoak dira
lan kolektiboa gidatzen duten
akordio partekatuak (esplizituak
edo inplizituak).

6. EGITEKO MODUA EGIN BEHARREKOA BEZAIN GARRANTZITSUA DA

Prozesuak arreta eskatzen du,
parte hartzen dutenen erritmo,
behar eta testuinguruekiko arreta.
Prozesua zaintzea sortzen den
ezagutza zaintzeko baldintza da.

8. KALITATEZKO ESPAZIOAK ETA TARTEA BEHAR DITUGU SORKUNTZARAKO

Adimen kolektiboak etenaldiak,
isiltasuna, elkarrizketa eta
esperimentazioa eskatzen ditu.
Inertziak hausteak baldintza
zehatzak sortzea dakar: presarik
gabe elkarrekin pentsatzea
ahalbidetzen duten espazioak,
agendak eta dinamikak. Ikaskuntza
eta Praktika Komunitateak (IPK)
tresna bereziki baliagarriak dira
prozesu horiei eusteko.

10. TRANSMISIO- MEKANISMORIK GABE, EZAGUTZA GALDU EGITEN DA

Ikasitakoa dokumentatzea,
sistematizatzea eta partekatzea
ezinbestekoa da, parte hartu
dutenengan ezagutza ez
geldiarazteko. Transferentzia-
metodologiak ezagutza-ekologiaren
funtsezko parte dira, eta eragina lan-
eremuetatik haratago hedatzea
ahalbidetzen dute.

EZAGUTZA BERRIA ELKARLANEAN
SORTZEAK PARADIGMA ALDATZEA
ESKATZEN DU: EGOZENTRISMOA
GAINDITZEA, EGITURAK
MALGUTZEA, HIZKUNTZA KOMUNAK
ERAIKITZEA ETA KONFIANTZA,
ZAINZTA ETA SORMENA
BULTZATUKO DUTEN
TESTUINGURUAK SORTZEA.

HORRELA SOILIK, DINAMIKA
INDIBIDUALISTETATIK ADIMEN
KOLEKTIBOKO PROZESU
PLURALETARAKO ALDAKETA
AHALBIDETU AHALKO DA,
ETA HORRELA, GURE PENTSATZEKO,
HARREMANETAN JARTZEKO ETA
JARDUTEKO MODUA ERALDATZEKO
GAI IZANGO GARA



2. ZAINZA ERDIGUNEAN: GURE HARREMAN-MODUAREN IKUSPEGI INTERSEKZIONALA

Lehen jardunaldian jorratutako egiturazko arazoez eta zapalkuntza-sistemez haratago, Txirikordaren bigarren gai horrek eremu pribilegiatua eskaini zuen hainbat lurraldetatik —Euskal Herria, Peru, Txile, Alemania, Kolonbia, Mexiko, Puerto Rico, besteak beste— etorritako profesionalen artean dialogatzeko. Truke horri esker, zehatzago identifikatu ahal izan ziren hainbat testuingurutan lotura etikoak, edota zainduak eta benetan eraldatzaileak ezartzea zailtzen duten oztopoak.

Elkarrizketek agerian utzi zituzten tentsio partekatuak, eta, aldi berean, horiei aurre egiteko gako praktikoak zirriborratzen lagundu zuten, bizitzaren zaintzari uko egin gabe eta ixteko, kontrolatzeko edo desparekotasunerako dinamikak biderkatu gabe.

Ikuspegi horretatik, zaintza, osagarri gisa ez ezik, ardatz politiko eta antolamendu-ardatz nagusi gisa antzeman zen, esperientzien konplexutasunari eta zapalkuntzen gainjartzeari arreta ematen dion begirada interseksionalari estuki lotuta.

Aurkeztutako proiektu eraldatzaileen esparruan, Otra Vuelta de Tuerca gidaren argitalpena nabarmendu zen. Engranaje Feministak Unibertsitate Emantzipatzaile baterako lana Aradia Kooperativak egin eta Emaus Gizarte Fundazioak argitaratu zuen, eta tokiko zein Hego Globaleko esparru akademiko eta asoziatiboko ezagutzak eta feminismo interseksionala sortzen adituak diren eragileen taldeen laguntza jaso zuten. Gidak azpimarratzen du garrantzitsua dela zapalkuntza desberdinak modu isolatuan ez jorratzea, baizik eta elkarrekin lotutako ekosistema gisa ulertzea, eta unibertsitate-komunitatea osatzen duten eragile guztien ahalduntzea azpimarratzen du —errektoretza-taldea, irakasleak, ikasleak eta administrazioako eta zerbitzuetako langileak— benetako aldaketa-prozesuak bultzatzeko baldintza gisa.

Bigarrenik, Sara Goienetxek Unibertsitate Kritikoa Sarea (UKS) aurkeztu zuen, eraldaketa sozialarekin eta justizia sozial eta klimatikoarekin konprometitutako euskal unibertsitate publikoa sustatzera bideratutako ekimena. Sareak irakasleak, ikasleak, gizarte-mugimenduak eta GGKEak biltzen ditu, eta horien esperientzia nabarmenen artean daude izaera eraldatzaileak duten GRALak eta MALak egiten laguntzea eta Gizarte Mugimenduen Herri Unibertsitatean (UPMS) parte hartzea.

Espazio horietan, akademiako eta gizarte-mugimenduetako eragileek elkarrekin hausnartzen dute unibertsitateak lurraldean bizi diren krisietan jarduteko duen modua.

Askotariko eragileen arteko lana artikulatzeko, sareak talde-afektibitatearen triangeluaren esparrua baliatzen du, emaitzei ez ezik, pertsonen eta prozesuen ere arreta emateko.

Ikuspegi horren baitan, eragile bakoitzak eskaintzen dituen ezagutza kokatuen balioa aitortzen da, produktibitatearen logika lineala zalantzan jartzen da —sinergiekin talde-lanaren ondorioak biderkatzen dituztela erakutsiz— eta lankidetzaren prozesu jasangarriak, horizontalak eta gardenak diseinatzeko dira, erabakiak hartzeko metodologiak eta uneak argi eta garbi zehaztuta.

Azkenik, Itziar Imazek, Tabakalerako bitartekaritza-arduradunak, Harrotu Ileak aurkeztu zuen, ibilbide luzeko proiektua, gazteen, Tabakaleraren eta hainbat artistaren arteko lankidetzaren gisa. Topaketarako, sorkuntzarako eta eztabaidarako gune hibrido gisa definitzen da eta erreferente bihurtu da egoera zaurgarrian bizi diren Donostiako gazte askorentzat, haien bizipenak, loturak eta beharrak artearen bidez lantzen baititu. Testuinguru horretan, begirada intersektzionala ezinbestekoa da: zaintza antolakuntza-alderdi zehatzetan —topaketen erregulartasuna edo baldintza materialen arreta— zein dimentsio sakonagoetan erakusten da, hala nola boterearen banaketan eta aginte partekatua eraikitzean.



“ZAINTZAREN” ARLOKO 10 PUNTU NAGUSIAK

1. HARREMANAK ZAINTZEA EGITURA INSTITUZIONAL ZURRUNEN AURREAN

Askotan erakundeek ez diote zaintzari lehentasuna ematen, eta horrek lotura hauskorrak sortzen ditu. Harreman-praktikek — entzutea, lagun egitea, pertsonen arreta ematea— benetako lekua eskuratu behar dute agenda eta egituretan, eta ez bakarrik diskurtsoetan.

3. KAPITALISMOAREN ERRITMOAK VS. ZAINTZAREN ERRITMOAK

Larritasunak, logika produktiboak eta eraginkortasunak eragindako presioak talka egiten dute komunitate bat eraikitzeak eskatzen dituen epeekin. Kalitatezko denborarik gabe —gelditzea, entzutea, prozesu iraunkorrak— ez dago adimen kolektiborik.

5. ARAU-ESPARRUAK PRAKTIKA ERALDATZAILEEN AURREAN

Araudiek eta protokoloek segurtasuna eskain dezakete, baina baita berrikuntza sozialeko prozesuak neutralizatu ere. Gardentasuna — espektatibak, mugak, rolak— funtsezkoa da gaizki-ulertuak saihesteko eta harreman zintzoagoa ahalbidetzeko.

2. ANIZTASUNA DISKURTSOAN VS DESPAREKOTASUNA PRAKTIKAN

Aniztasunaz hitz egiteak ez du harreman horizontalik bermatzen. Marjinalizazioa edo estraktibismo epidemikoa erreproduzitzen duten botere-dinamikek irauten dute. Askotariko ezagutzak aitortzea eta geure botere-posizioak berrikustea ezinbesteko urratsak dira.

4. BENETAKO LANKIDETZA LEHIAREN ETA ESTRAKTIBISMOAREN AURREAN

Espazio akademiko eta profesionalak praktika indibidualistek eta lehiakorrek zeharkatzen dituzte, eta horrek kosormena zailtzen du. Indibidualizatu gabe humanizatzeko ardatz egozentrikotik irtetea eta ondokoa gauza bihurtzea alde batera uztea esan nahi du.

6. KALTEBERATASUNA, INTERDEPENDENTZIAREN OINARRI ETIKO GISA

Pertsona oro interdependentea eta ekodependentea dela onartzeak autosufizientziaren ideala mugiaraztea eta bizitza erdigunean jartzea ahalbidetzen du. Ahultasun partekatua iparrorratz instituzional bihur daiteke.

8. SORMENA LOTURA- TRESNA GISA

Metodologia artistikoek (teatralizazioa, simulakroa, esperimentazioa) beste modu batera pentsatzea, iruditeri kolektiboak zabaltzea eta lotura afektiboak sortzea ahalbidetzen dute. Pertsona askorentzat, dimentsio hori “soldata emozionala” da.

10. EZAGUTZA DOKUMENTATZEA, TRANSMITITZEA ETA MANTENTZEA

Praktika eraldatzaileek transmisio-metodologia argiak behar dituzte, ikaskuntza parte hartu zutenengana mugatu ez dadin. Adimen kolektiboa hedatzen da ezagutza bere espiritu kritikoa galdu gabe hedatzen eta instituzionalizatzen denean.

7. DISENSOAREN BALIOA TRESNA PEDAGOGIKO GISA

Behar guztiak ezin dira harmonizatu; tentsioak agertzen direnean, disentsioa onartzeak — saihestu beharrean— ikaskuntza, elkarrekiko onarpena eta berrikuntza bultzatzen ditu.

9. DENBORAREN ETA BIZITZAREN PREKARIETATEAREN AURREAN LAGUNTZA- KOMUNITATEAK BERRERAIKITZEA,

Finantzaketaren eta aldi baterako eskuragarritasunaren mugek ahaleginak zatitu eta loturak higatzen dituzte. Prekarietate hori aitortzeak lankidetza jasangarria egingo duten elkarri laguntzeko moduak diseinatzen laguntzen du.

**EZAGUTZA ERALDATZAILEAK SORTZEAK GIZA
EGITUREN ETA ELKARRERAGINEN ARTEKO
ETENGABEKO OREKA ESKATZEN DU.**

**GAKOA EZ DA SOILIK PROIEKTU BERRIAK
SORTZEA, BAIZIK ETA ELKARTZEA
AHALBIDETZEN DUTEN BALDINTZAK
ERALDATZEA: GARAI GIZATIARRAGOAK,
HARREMAN HORIZONTALAK, ASKOTARIKO
EZAGUTZAK, ZAURGARRITASUN PARTEKATUA,
SORMEN POLITIKOA ETA DISENSOAREN
PEDAGOGIA.**

**HORRELA BAKARRIK ERAIKI AHAL IZANGO
DITUGU PREKARIETATEARI AURRE EGITEKO,
KOOPTAZIO INSTITUZIONALA SAIHESTEKO ETA
BIZITZA ERDIGUNEAN JARTZEN DUTEN ETA
ETORKIZUN DEMOKRATIKOAGOAK,
BIDEZKOAGOAK ETA PLURALAGOAK
IMAJINATZEA ETA PRAKTIKATZEA
AHALBIDETZEN DUTEN ADIMEN KOLEKTIBOKO
PROZESUEI EUSTEKO GAI DIREN
KOMUNITATEAK.**



3. UNIBERTSITATEAREN ETA • GIZARTEAREN ARTEKO ZUBIAK: EGITEN DUGUNAREN ERAGINA

Pluribertsitatean ezagutza sortzen saiatzen gara, konpromisoaren, elkarrekiko erantzukizunaren eta zaintzaren bitartez. Hala ere, funtsezko galdera bat sortzen da: nola lortuko dugu ezagutza hori guztia benetan pertsonengana, komunitateengana eta gizarte-kolektiboengana iristea? Eraginaren gaia hirugarren gaia da: zer ondorio dituzte gure ekintzek? komunikazioa al da ezagutza balio sozial bihurtzeko aukera ematen duen zubia? zer gako behar ditugu benetan axola duena anplifikatzeko?

Azken batean, aurkeztutako ekimen guztiak zeharkatzen dituen sakoneko galdera bat planteatu zen:

Jakintza metatzeko edo eraldaketa sozial
erreala, jasagarria eta partekatua lortzen
laguntzeko sortzen al dugu ezagutza?

Erronka horrek elkarriketaren abiapuntua markatu zuen, eta eztabaida beharrezko azpiegitura, metodologia eta aliantzetara bideratu zuen, ezagutza espazio akademiko edo instituzionaletan gera ez dadin, baizik eta zirkulatu, egokitu eta aldaketa zehatzak sor ditzan.

Esparru eta galdera horietatik abiatuta hasi zen hiru emakumeren arteko elkarriketa, eta hainbat esparrutatik aurkeztu zituzten lankidetzak eta eraldaketa-ekimenak. Céline Moureauxek 2024–2025 ikasturtean Donostian garatutako ikaskuntza biziko esperientzia partekatu zuen saioari hasiera emateko. Emaus Gizarte Fundazioak, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko (EHU) ikasgeletan, justizia klimatikoarekin lotutako erabakietan parte-hartze demokratikoarekin lotutako trebetasun teknikoak eta emozionalak lantzen lagundu zien ikasleei. Proposamenak herritarren batzarren simulazio baten forma barne hartu zuen, eta horri esker, hausnarketarako beste modu batzuk esperimentatu ahal izan ziren: horizontalagoak, askotarikoak eta egungo egiturak baino hierarkia gutxiagokoak. Praktika horrek irakaskuntzan tresna alternatiboak sartzearen garrantzia azpimarratu zuen, edukia ez ezik, elkarrekin ikasteko eta erabakitzeko modua ere eraldatuko dutenak.

Jarraian, Sandra Bonik, Valentziako Unibertsitate Politeknikoko katedradun eta Ingenio Institutuko ikertzaileak, berrikuntza eraldatzaileko, giza garapeneko, gizarte-berrikuntzako eta goi-mailako hezkuntzako politiketan duen esperientzia partekatu zuen. Politikak elkarrekin diseinatzeko eta ebaluatzen partaidetza-metodologietatik, akademiaren eta gizartearen arteko lankidetzaren epe luzeko prozesuetan hartzearen garrantzia nabarmendu zuen. Esparru akademikoan bertan lankidetzan aritzeko zailtasunak agerian uzten du zubi jasangarrien beharra, lotura puntualak alde batera utzita.

“Elkarlaneko zientzian ezagutza aplikatu egin behar da –azpimarratu zuen– eta parte-hartzaileentzat garrantzitsua izan behar du: ez da nahikoa haiei buruz ikertzea, haiekin ikertu behar baita.”

Azkenik, Lur Olaizolak, Tabakalerako ikus-entzunezko programaren koordinatzaileak, Gazteak Zinean aurkeztu zuen, Tabakaleraren eta EHUren artean publiko berria zinemara erakartzeko sortutako proiektua. Proposamenak graduako unibertsitateko ikasleak gonbidatzen ditu hilean behin Tabakalerako zinema-aretoa programatzera. Itxuraz erraza den keinu horrek fokua mugitu egiten du: gazteak publiko izatetik erabakitze eta ordezkatzeko gaitasuna duten eragile izatera igarotzen dira. Esperientziak erakusten duenez, gazteengan konfiantza izateak eta jarduteko benetako espazioa eskaintzeak, gazteen parte-hartzea handitzeaz gain, haien artean lotura sakonak sortzen ditu, bai eta elkarrekiko ikaskuntzak eta proiektua bera gainditzen duen ahalduntzea ere.

Lan-mahaiek erakutsi zuten komunikazio eraldatzaile batek, batez ere, koherentzia eskatzen duela esaten dugunaren eta egiten dugunaren artean, baita entzute sakonean, gardentasunean eta horizontaltasunean oinarritutako harreman-praktikak ere. Hainbat oztopo identifikatu ziren, hala nola ikuspena lortzeko gaitasuna, ekipoen dibertsitate falta, hizkuntza abstraktuegiak erabiltzea eta kuantifikagarria dena soilik baloratzeko joera, eta horrek komunitate-inpaktua ahultzen du. Horren aurrean, honako hauek nabarmendu ziren: iritzirik gabeko elkarrizketa-kulturak eraikitzea, premietatik eta ez egoetatik komunikatzea; metodologia sortzaileak eta esperientziazkoak txertatzea; eta agenda partekatuak indartzea, ahots komunitarioa urrunago iristeko. Laburbilduz, komunikazioa zainketarekin, koherentziarekin eta lankidetzaren iraunkorrarekin lerrokatzen denean sortzen da inpaktu soziala.



“KOMUNIKAZIOA ETA INPAKTUAREN” 10 PUNTU NAGUSIAK

1. DISKURTSOAREN ETA PRAKTIKAREN ARTEKO KOHERENTZIA: “EGITEKO MODUAK” ERE KOMUNIKATZEN DU

Elkarrizketek ohiko tentsio bat erakutsi zuten: askotan esaten dugunaren eta egiten dugunaren artean aldea dago. Komunitateek eta kolektiboek sumatzen duten inkoherentzia horrek mesfidantza sortzen du. Gardentasuna eta koherentzia —balioen, diskurtsoen eta ekintzen artean— ezinbestekoak dira komunikazioak sinesgarritasuna eta gizarte-inpaktua benetakoa izateko.

3. ANIZTASUN ETA POLARIZAZIO FALTA: INPAKTUA POBRETUKO DUTEN BEGIRADA PARTZIALAK

Mahaiek adierazi zuten ez zegoela talde desberdinik —esperientzian, adinean, jatorrian, klasean, jakintzetan, ibilbideetan— egiturazko muga gisa. Era berean, nabarmendu zuten egungo polarizazioak beste ikuspegi batzuk entzutea zailtzen duela eta “norberaren begiradan” oinarritutako jarrera zurrinak bultzatzen dituela.

2. IKUSGAITASUNERAKO LEHIA VS. BENETAKO LANKIDETZA

Espazio askotan banakako protagonismoaren logikak jarraitzen du funtzionatzen: nor agertzen den, nork hitz egiten duen, nork gidatzen duen, nork hartzen duen kreditua. “Ego-lehiakortasun” horrek elkarlaneko ehuna zatitzen du eta kontakizun partekatuak sortzea oztopatzen du. Espazioak lagatzea, lidergoa banatzea eta norberaren botere-posizioa aitortzea erronka garrantzitsuak dira oraindik ere.

4. HIZKUNTZA ABSTRAKTUAK ULERMENA ZAILTZEN DU ETA KOMUNITATEAK URRUNTZEN DITU

Kontzeptu teorikoegiak, teknikoak edo abstraktuak erabiltzeak mezua pertsonengana iristea zailtzen du. Komunikazioak indarra galtzen du esan nahi dena identifikatzeko aukera ematen duten adibide, istorio edo irudietan zehazten ez denean.

5. TXIKIA ETA IKUSEZINA BALORATZEA: INPAKTUA EZ DA KUANTIFIKAGARRIA BAKARRIK

Handia, agerikoa eta zenbakizkoa dena neurtzeko joera dugu, eguneroko keinuak, aldaketa txikiak eta gizarte-eragina ere eragiten duten aldaketa intimoak alde batera utzita. Gainera, zailtasunak izaten jarraitzen dugu egiten duguna neurtzeko eta inpaktu positiboa zein negatiboa kritikoki ebaluatzeko.

7. KOMUNIKAZIOA BEHARRETATIK, EZ EPAIKETETATIK: INDARKERIARIK GABEKO KOMUNIKAZIO- PRAKTIKAK

Gure barruan gertatzen dena argi eta garbi adierazteak eta parte hartzen dutenen beharrei erantzuteak elkarrizketa zintzoagoak eta kolaboratiboagoak izatea ahalbidetzen ditu. Komunikazio ez bortitza (KEB) tresna erabilgarria da konexioa blokeatzen duten etiketak, eskakizunak eta iritziak desmuntatzeko.

6. BELDURRIK ETA EPAIKETARIK GABEKO ELKARRIZKETAREN KULTURA ERAIKITZEA

Komunikazioa eraldatzeko, beharrezkoa da hitz egin daitekeen inguruneak sortzea, epaitua, barregarria edo baliogabetua izateko beldurrik gabe. Osorik entzutea —barrura eta kanpora begira— da kultura honen oinarria. Sentitzen duguna eta komunitateak behar duena entzutea funtsezko urratsak dira diskurtsoa eta praktika lerrokatzeko.

8. KOMUNIKAZIOA GORPUZTEA: ESPERIENTZIA ETA ARTEAREN IKUSPEGITIK ESKU HARTZEA

Esku-hartze batek ez du zertan intelektuala bakarrik izan: bizipenezkoa, gorputzezkoa, artistikoa izan daiteke. Espazioa aldatzeak, metodologia sortzaileak erabiltzeak edo ikuspegi ez-diskurtsiboak aztertzeak botere-dinamikak apurtzen eta loturak indartzen laguntzen du. Arte- eta gorputz-prozesuak pentsamenduaren palanka indartsuak dira, arteak eta gorputzak aukera ematen dutelako kontrol kognitiboa lasaitzeko eta modu ez-linealetan pentsatzeko. Metodologia artistikoak eremu ez-artistikoetan txertatzeak ohiko arrazionaltasunak iristen ez dituen sorkuntza-bideak irekitzen ditu.

9. ESPERIENTZIA IRAUNKORRETAN OINARRITUTAKO KOMUNIKAZIOA, EZ GERTAERA ISOLATUETAN

Eragina indartu egiten da harremanek denboran irauten dutenean. Komunikazio komunitarioak etengabeko prozesuak behar ditu, ez bakarrik ekintza puntualak.

10. AGENDA PARTEKATUAK ETA MEZU ARGIAK: AHOTS KOMUNITARIOA ANPLIFIKATZEKO BALDINTZAK


Komunikazioa urrun iristeko, funtsezkoa da elkarguneak aurkitzea, asmoak argitzea eta mezu ulergarriekin lan egitea. Agendak sakabanatzeak mezuaren indarra zatikatzen du; ikuspegiaren batasunak biderkatu egiten du.



INPAKTU SOZIALA EZ DA SOILIK EGITEN
DUGUNAREN ARABERAKOA, BAIZIK ETA
KOMUNIKATZEKO MODUAREN,
HARREMANETAN JARTZEKO MODUAREN
ETA ENTZUTEKO MODUAREN ARABERAKOA.

ERALDAKETAK KOHERENTZIA,
ANIZTASUNA, GARDENTASUNA,
HIZKUNTZA ESKURAGARRIAK,
METODOLOGIA SORTZAILEAK ETA
BARNEKO ETA KANPOKO ENTZUKETA-
PROZESUEKIKO KONPROMISO SAKONA
ESKATZEN DITU.

HORRELA BAKARRIK BIHUR DAITEKE
KOMUNIKAZIOA SORTZEN DUGUN
EZAGUTZAREN ETA ZERBITZATU NAHI
DUGUN KOMUNITATEAREN ARTEKO
BENETAKO ZUBI, GURE AHOTS KOLEKTIBOA
ZABALDUZ ETA GIZARTEA ERALDATZEKO
DUGUN GAITASUNA INDARTUZ.



5. ONDORIOAK ETA HURRENGO URRATSAK

Jardunaldiaren ikasketa orokorrekin adierazten dute espazio irekiak, pluralak eta lankidetzakoak behar direla, hala nola HIRU(H)ARI, non topaketa erregularren bidez paradigma-aldaketa bat aztertuko den: komunitatean benetako inpaktua izango duten etorkizuneko lankidetzak eraikitzea ahalbidetuko duten saiakerak.

Hainbat ikuspegiren baturak prozesuak aberasten dituela egiaztatu zen, baita horiek motelago edo konplexuago bihurtzen direnean ere. Halaber, “gure egia” irtetearen garrantzia nabarmendu zen, bai eta gizarte-munduari ulermen zabalago, errealago eta koherenteago batera zabaltzeko, eta elkarrekiko ulermena erraztuko duen komunikazio argi, zintzo eta eskuragarriaren garrantzia ere. Hori guztia zaintza oinarri duen kultura batean bakarrik da posible, non loturak, denborak eta pertsonen beharrak artatzea elkarrekin aurrera egiteko baldintza bihurtzen den.

HIRU(H)ARI sortzeko eta antolatzeko prozesuari dagokionez, talde antolatzailea pozik agertu zen bi jardunaldien garapenarekin eta emaitzekin. **Topaketaren prestakuntzak berak elkarlanaren adibide gisa funtzionatu zuen:** entzutea, komunikazioa, helburuei eta balioei buruzko akordio partekatua, krisi txikiak nabigatzeko erresilientzia, eta inplikaturako denbora, espazio eta pertsonen artean ematea funtsezko elementuak izan ziren proiektua ondo iristeko. Lehen eguneko jardunaldia, Maialen, Katya eta Manuelaren arteko solasaldia, ariketa ausart eta probokatzailerak izan zen. Hiru hitzaldi oso desberdin batera egoteak haridura, interesa eta hausnarketarako espazio emankorra sortu zuen ustekabearen. Bigarren jardunaldia, Txirikorda, txikia izan arren eta azken orduko ausentzia batzuk gorabehera, bereziki zaindaturako espazio gisa bizi izan zen, eta parte-hartzaileek sakontasunez lan egin eta lotura esanguratsuak ezarri ahal izan zituzten.

Parte-hartzaileek bereziki baloratu zuten topaketaren planteamendua eta egitura, sinergiak erraztu eta talde-lanerako giro egokia sortu baitzuten.

Antolaketa, edukiak, erabilitako metodologiak eta espazioa bera mimos zainduta zeudela, eta horrek esperientzia aberatsa eta abegikorra ekarri zuela adierazi zuten. Pertsonen zaintza —hurbiltasuna, berotasuna, presarik gabe hitz egitea ahalbidetu zuen erritmo lasaia— elementu estimatuenetako bat izan zen. Era berean, pertsona eta proiektu berriak ezagutzearen aberastasuna, eztabaiden erabilgarritasuna eta topaketatik harago jarrai dezaketen aliantzak ezartzeko aukera azpimarratu ziren. Gainera, HIRU(H)ARI bezalako ekimenek baliabide gutxiago dituzten erakundeek inplikazioa ahalbidetzearen garrantzia aipatu zen, partaidetzarako baldintza ekitatiboak sortzeko beharra azpimarratuta.

Hobetu beharreko alderdiei dagokienez, aitortu zen **egun osokoa izatea gogorra izan zela eta tarte txikia utzi zuela bizitakoa integratzeko**. Xuxurlarien itzulpen-denborak doitzeko beharra ere aipatu zen, erritmo azkarrak jarraipena zaildu baitzuen. Era berean, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko lotura globalak indartuko dituzten eta hasitako lanari jarraipena emango dioten ekintza espezifikoak zehaztea falta zen.

Azken inkestari erantzun zioten parte-hartzaileen % 86k adierazi dute jardunaldietan ikuspegi eraldatzaile berriak eskuratu dituztela eta ohiko jardunbideetara eraman nahi dituztela.

Azken inkestari erantzun zioten parte-hartzaileen % 86k adierazi dute jardunaldietan ikuspegi eraldatzaile berriak eskuratu dituztela eta ohiko jardunbideetara eraman nahi dituztela. Aipatutako ikaskuntzen artean, honako hauek nabarmentzen dira: praktikak ezagutza ere sortzen duela eta egunerokoan txertatu behar dela, zama gehigarri bihurtu gabe; hainbat erakunderekin lankidetzan, ikaskuntza-zerbitzuko ikuspegiak aplikatzeko interesa; hausnarketa kolektiboak jakintza partekatuak ekoizteko metodologia gisa duen garrantzia; Sandra Boniren ikuspegiak eta Tabakalerako taldeetatik eratorritako komunitatea sortzeko proposamenek ekarri zuten inspirazioa; eta beste erakunde batzuekin sarea egiteko, harremanak mantentzeko, lankidetzaproiektuak eta diziplina anitzekoak hasteko edo jada martxan dauden lanak indartzeko nahia, ezagutzak, pertsonak eta erakundeak “sareratze” logika ekosistemiko batetik abiatuta.

Parte-hartzaile gehienek —% 80k— uste dute jardunaldian ordezkaturako esparruen aniztasuna bereziki aberasgarria izan zela eta ikuspegi berriak zabaltzeko aukera eman zuela.

**Sortutako loturei dagokienez % 86k
bertaratutako pertsonaren batekin lankidetzan
aritzea edo komunikatzea aurreikusten du.**

Erantzun duten erdiek dagoeneko egin dute; beste erdiek, berriz, etorkizun hurbilean egin nahi dutela adierazi dute. Datu horrek berresten du jardunaldiak soberan bete zuela talde eragilearen asmoa, hots, akademiaren, kultur sektorearen eta hirugarren sektorearen arteko aliantza berriak bultzatzea.

Etorkizuneko edizioetan jorratu litezkeen erronkei eta lan-ildoei dagokienez, parte hartzaileek paradigma aldaketarantz aurrera egitea proposatzen dute, programatzean eta diseinatzean oinarritutako ereduetatik komunitateekin batera ko-sortu eta laguntzera bideratutako ikuspegietara igarotzeko.

Honekin batera, hainbat intereseko arlo proposatu dira, besteak beste: klima-aldaketa eta jasangarritasun ekologikoa; herritarren eta administrazioaren arteko elkartasun-, lankidetzaz- eta koprodukzio-harremanak sustatzeko beharra; hezkuntza-erlaldaketa; proiektu zehatz eta jarraituetan lan egitea; gizarte-berrikuntza inpaktu-ebaluazioekin; komunitateen sorrera eta zaintza; eta bizitzara bideratutako ekonomietatik polikrisiari aurre egiteko gai diren sare sendoak eta maila anitzekoak eraikitzea.

Oro har, balorazioek eta proposamenek jarraitzeko eta, aldi berean, bide berrietara zabaltzeko gogo argia islatzen dute. Jardunaldiak ikaskuntza eta lotura esanguratsuak sortzeaz gain, ongizatearen eta guztion ongiaren zerbitzura dagoen adimen kolektiboari eutsi ahal izango dioten elkarlaneko, ekosistemako eta eraldaketako praktikan sakontzen jarraitzeko beharra berretsi zuen.

ESKERRIK ASKO!

Eskerrik asko zaintzaz eta konexioz beteriko topaketa hau posible egin duten partaide eta erakunde guztiei.

Hurrengo topaketan elkar ikusiko dugulakoan!



07. BALIABIDEAK

I. Urriaren 9ko elkarrizketa osoa

Hiru(h)ari (ES) Manuela Carmena, Katya Colmenares, Maialen Lujanbio



II. Hiru(h)ari-ren bideo laburpena

HiruHari 🌟🌟 Pluribertsitatea, kultura eta komunitatea 2025




III. Podcast (NotebookLM-k sortua txosten honetan oinarrituta)

Podcast

hiru(h)ari





PLURIBERTSITATEA, KULTURA ETA KOMUNITATEA